Mairie de MACAYE - *MAKEAko Herriko Etxea*

Réunion Conseil Municipal - *Herriko kontseiluaren bilkura*
03/06/2022 à 20h30

Barkatuak, excusés : Dominique BORDA, Jean Pierre IDIART, Beñat SAINT ESTEBEN, Bixente UHALDE

| | |
|---|---|
| **<u>1. Approbation du Compte Rendu de la réunion du 01/04/2022.</u>**<br>Accord du Conseil à l’unanimité des membres présents. | **<u>1. 2022/04/01eko bilkura txostenaren onartzea.</u>**<br>Hor ziren kontseilu kide guziek aho batez onartu dute. |
| **<u>2. Aménagement parkings Etxe Handia.</u>**<br>Un échange de terrain avec les propriétaires de la maison Kapera, va être fait.<br>Les entreprises de la zone vont prendre en charge l’aménagement des parkings. | **<u>2. Etxe Handiko aparkalekuen antolaketa</u>**<br>Kapera etxearen jabeekin trukaketa bat eginen da.<br>Eskualdeko enpresek eginen dute aparkalekuen antolaketa. |
| **<u>3. Bureaux de vote pour les élections législatives.</u>**<br>- 12 juin<br>Le matin : Jean Michel GOUTENEGRE, Céline JORAJURIA, Alain DUBOIS.<br>L’après-midi : Laurence INDART, Alain DUBOIS, Ramuntxo DUHART, Dominique CLAVERIE, Bixente UHALDE<br><br>- 19 juin<br>Le matin : Thierry OTHARAN, Lorraine AUCHOBERRY, Michel SIMON, Armelle OXARANGO<br>L’après-midi : Myriam RECONDO, Jean-Pierre IDIART, Dominique BORDA, Michel SIMON, Benat SAINT ESTEBEN | **<u>3. Bozka bulegoa diputatu bozen karietara.</u>**<br>- Ekainaren 12an<br>Goizean: Jean Michel GOUTENEGRE, Céline JORAJURIA, Alain DUBOIS.<br>Arratsaldean: Laurence INDART, Alain DUBOIS, Ramuntxo DUHART, Dominique CLAVERIE, Bixente UHALDE<br><br>- Ekainaren 19an<br>Goizean: Thierry OTHARAN, Lorraine AUCHOBERRY, Michel SIMON, Armelle OXARANGO<br>Arratsaldean: Myriam RECONDO, Jean-Pierre IDIART, Dominique BORDA, Michel SIMON, Beñat SAINT ESTEBEN |
| **<u>4. Augmentation du prix des repas à domicile.</u>**<br>Le coût facturé par Suhari passe de 4,80 € à 5 €.<br>Il est décidé de passer le prix facturé aux bénéficiaires de 7 € à 7,50 € car il y aura une autre augmentation en septembre et ce prix n’a pas évolué depuis la mise en place de ce service. | **<u>4. Etxez etxeko apairuen prezioaren emendatzea.</u>**<br>Suharik fakturatu kostua 4,80 €-tik 5,00€-ra iragan da.<br>Erabaki da hartzaileei fakturatu prezioa 7,00 €-tik 7,50 €-ra iragatea, irailean beste emendio bat izanen baita, eta prezioa ez da aldatu zerbitzua plantan ezarri denaz geroztik. |
| **<u>5. Cantine scolaire de Mendionde.</u>**<br>Une solution pour pallier au déficit de fonctionnement de cette cantine, est d’augmenter le nombre de repas distribués.<br>Des efforts ont été faits dans ce sens en ajoutant l’école de Louhossoa et le centre de loisirs Uda Leku d’Itxassou.<br>Des contacts ont été pris avec l’école et la commanderie d’Irissarry. | **<u>5. Lekorneko kantina.</u>**<br>Kantinako funtzionamendu eskasaren gainditzeko aterabide bat da apairu kopuruen emendatzea.<br>Horretarako, Luhusuko eskola eta Itsasuko Uda Leku aisialdi zentroa gehitu dira.<br>Irisarriko eskolarekin eta enkomiendarekin harremanetan jarri gara.<br>Negoziaketak ongi bururatzen baldin badira, sukaldea ttipiegi gertatuko da. Inbestimendu hori abiatu aitzin, |

| | |
|---|---|
| Si les négociations aboutissent, la cuisine risque d'être trop petite. Un chiffrage de l'agrandissement sera fait avant de se lancer dans cet investissement.<br>Le prix du repas sera augmenté de 30 centimes : 20 centimes pour les parents et 10 centimes pour les mairies. | kantinaren handitzeko obrak zifratuko dira.<br>Apairuaren prezioa 30 zentimoz emendatuko da: 20 zentimo burasoen gain, 10 zentimo herriko etxeen gain. |
| **<u>6. Litiges en cours sur l'urbanisme.</u>**<br>- Permis d'aménager pour le lotissement Oxarango qui a été refusé par l'État.<br>- Hirigoyen : les échanges de courriers se font entre avocats. Un nouveau permis a été déposé pour une bergerie. | **<u>6. Hirigintzari buruz auziak.</u>**<br>- Estatuak antolaketa baimena ukatu du Oxarango lotizamendurako.<br>- Hirigoyen: gutun trukaketa egiten ari da abokatuen artean. Baimen berria galdatu da arditegi baterako. |
| **<u>7. Embauche employé communal.</u>**<br>Nous avons 4 candidatures :<br>- Stéphane LOME<br>- Nicolas DAGUERRE<br>- Mohammed MEZRAI<br>- Frédéric …<br>On va se faire accompagner par le Centre De Gestion de Pau pour faire le choix.<br>Des entretiens auront lieu avant la fin du mois. | **<u>7. Herriko langileen enplegatzea.</u>**<br>4 hautagai ditugu:<br>- Stéphane LOME<br>- Nicolas DAGUERRE<br>- Mohammed MEZRAI<br>- Frédéric …<br>Langile baten hautatzeko, Paueko Kudeaketa Zentroak lagunduko gaitu.<br>Elkarrizketak iraganen dira hilabete finitzea gabe. |
| **<u>8. Subventions DETR.</u>**<br>Les dotations DETR vont diminuer de 10 à 15 % et celles de la DSIL de 50 %.<br>Pour la réhabilitation du presbytère, on va faire un appel d'offres en octobre afin de pouvoir déposer un dossier rapidement et bénéficier des subventions actuelles. | **<u>8. BEH laguntza.</u>**<br>BEH emaitzak murriztuko dira % 10 - % 15ez, eta TISE emaitzak % 50ez.<br>Apezetxea zaharberritzeko, eskaintza-deialdi bat eginen dugu urrian dosier bat laster aurkezteko eta oraingo dirulaguntzak ukaiteko. |
| **<u>9. Animation des Associations Foncières Pastorales (AFP).</u>**<br>Lucie TROGNON a été embauchée pour faire émerger et suivre des projets pour une agriculture viable.<br>Ainsi, 2 projets sont nés à Bidarray sur l'Artza Mendi ; A Macaye, une association existe pour les Sasi Ardi ; A Arrosa, sur l'Arla, on élève des porcs Quintoa.<br>Une enquête s'est déroulée récemment sur Macaye et Bidarray avec un nombre important de retours.<br>Elle portait sur des projets en réflexion :<br>- Structuration de la filière châtaignes. | **<u>9. Artzainen Lur Elkartearen animazioa</u>**<br>Lucie TROGNON enplegatu da proiektuak agerrarazteko eta segitzeko, laborantza bideragarri baten alde.<br>2 proiektu sortu dira Bidarraiko Artzamendin; Makean jadanik bada elkarte bat sasi ardientzat; Arrosako Arlan Kintoko euskal xerriak hazten dira.<br>Inkesta bat egin da berriki Makean eta Bidarrain, eta erantzun franko bildu da.<br>Inkesta gogoetatzen ari diren proiektuei buruz zen:<br>- Gaztaina adarraren egituraketa.<br>- Laborantza ekoizpenen saltokiaren sortzea. |

| | |
|---|---|
| - Création d’un point de vente de produits agricoles.<br>- Création d’un groupement d’employeurs.<br>- Création d’un atelier collectif de transformation de viande.<br>Des personnes sont intéressées par ces projets. A suivre.<br>Le contrat de Lucie TROGNON va être renouvelé, des démarches sont en cours pour le financement de ce poste supporté par les 3 AFP. | - Enplegatzaile talde baten sortzea.<br>- Haragia transformatzeko lantegi kolektiboaren sortzea.<br>Pertsona batzuk proiektu horiei interesatzen dira. Segitu beharko den afera.<br>Lucie TROGNONen kontratua berrituko da, desmartxak bidean dira Artzainen 3 Lur Elkarteek bermatzen duten lanpostu horren finantzatzeko. |
| **<u>10. Indemnités des agents territoriaux.</u>**<br>Il s’agit des primes versées en fin d’année.<br>Il existe 2 primes, l’IFCE et le CIA avec des montants à ne pas dépasser.<br>L’appréciation du supérieur entre en compte pour l’attribution de ces primes.<br>Les montants suivants sont décidés (IFCE + CIA) :<br>- Cécile : 3000 € + 300 €<br>- Xan : 2000 €<br>- Sylvie : 2000 €<br>- Christine : 200 €<br>Accord du Conseil à l’unanimité des membres présents. | **<u>10. Lurraldeko langileen ordainsariak.</u>**<br>Urte hondarreko sariak dira.<br>Badira 2 sari: IFCE eta CIA, iragan ez daitezkeen zenbatekoekin.<br>Gaineko arduradunaren iritziak konda du sari horien emateko.<br>Zenbateko hauek ematea erabaki da (IFCE + CIA):<br>- Cécile: 3000 € + 300 €<br>- Xan: 2000 €<br>- Sylvie: 2000 €<br>- Christine: 200 €<br>Hor ziren kontseilu kide guziek aho batez onartu dute. |
| **<u>11. Appel à projet par le Conseil Départemental.</u>**<br>Les dossiers doivent être préparés pour le 23/09/2022 et concernent les aires de jeux et les salles multi-sport.<br>A voir éventuellement un mur d’escalade entre le Mur à Gauche et l’Ecole. | **<u>11. Departamendu Kontseiluaren proiektu deialdia</u>**<br>Dosierrak prest izan behar dira 2022/09/23ko, eta joko-gune eta kirol-geletarako dira.<br>Beharbada eskalada murru bat ezartzen ahal liteke ezker paretaren eta eskolaren artean. |
| **<u>12. Adressage.</u>**<br>Les panneaux de numérotation des maisons vont arriver en fin de semaine prochaine. Il faudra les contrôler et prévoir deux permanences le samedi matin en mairie pour distribuer ces panneaux et un courrier explicatif.<br>Il faut préparer un courrier pour les administrés en leur indiquant ces permanences. | **<u>12. Helbideratzea.</u>**<br>Etxeetako zenbakien plakak heldu den aste hondarrean helduko dira. Beharko dira kontrolatu eta bi permanentzia finkatu Herriko Etxean larunbat goizez plaka horien eta esplikazio-gutun baten banatzeko.<br>Gutun bat behar da prestatu herritarrentzat, permanentziak jakinarazteko. |
| **<u>13. Questions diverses.</u>**<br>- Regroupement Pédagogique Intercommunal (RPI) : une décision sur l’école en immersion en langue basque sera à prendre.<br>- Miellerie : l’association Ezti Etxea souhaite | **<u>13. Gainerako gaiak.</u>**<br>- Herriarteko Eskola Elkargoa (HEE): beharko da erabaki bat hartu murgiltze sistemako eskolari buruz.<br>- Eztitegia: Ezti Etxea elkarteak egun bat nahi du antolatu lekuaren ezagutarazteko: iraileko egun baten |

| | |
|---|---|
| organiser une journée découverte : on leur propose de la choisir en septembre.<br>- Demande de la salle de théâtre par l'association Jostakin.<br>- Lundi à 20h, une réunion pour l'organisation des fêtes aura lieu. La commission Culture y est invitée.<br>- Départ à la retraite de Xan ECHEVERRIA : une réception aura lieu avec un cadeau sous forme de prime.<br>- Le berger embauché pour la surveillance du Baigura, est arrivé et loge à Etxetoa pour 4 mois.<br>- Nous avons reçu un courrier de M. et Mme Dauga indiquant qu'ils ne souhaitent plus entretenir le terrain communal qui se trouve au bas de leur terrain. | hautatzea proposatuko diegu.<br>- Jostakin elkarteak antzerki gela galdegin du.<br>- Astelehenean, 20:00etan, bilkura bat izanen da besten antolatzeko. Kultura batzordea gomit da.<br>- Xan ECHEVERRIA erretretara doa: ospakizuna eginen da, eta opari gisa joate-saria emanen zaio.<br>- Baigura zaintzeko enplegatu den artzaina hor da, Etxetoan sartua da 4 hilabeterako.<br>- Dauga jaun-andereen gutun bat errezibitu dugu: ez dute gehiago entretenitu nahi beren lursailaren zolako herriko lurra. |